

Gazte baten larruan sartu nintzen ipuina idazteko. Hori da literatura azken finean

Urtero bezala Ikust-Alaia Udal Liburutegiak irakurketa irekiarekin ospatu zuen atzo Nazioarteko Liburuaren Eguna. Euskarazko irakurketan Maite González Esnal idazlearen Maiderren taupada bilduma irakurri zuten hiritarrek. González Esnalek berak eman zion hasiera irakurketari ipuineko lehen kapitulua irakurtzen.

-Zure ipuineko protagonista ezberdina da nolabait. Ez du bizitza normala izan

- Liburua idatzi nuenean buruan bi ideia erabili nituen: alde batetik, nola txikitatik zaletasun ba-tzuk ekarri eta gero oso bide xebleen bidez lantzen ditugun azaldu nahi izan nuen. Kasu honetan Maiderrek, bere moduan, zientziarako zaletasuna du. Animalien taupadak entzutea du gustuko. Animalia bakoitzak zer nolako bizitza duen eta zer nolako portaera duen aztertu nahi ditu Maiderrek, eta hauek dira hain zuzen, zientzian behar diren dohainak edo abileziak. Begiratu, ukitu eta beraien bizitza ulertzen saiatu.

- Eta zein da beste ezaugarria?

- Kasualidadez eta ustekabeen jaio zelako, Maiderren sehaska maleta bat izan zen. Hau ez da fikzioan gertatzen den gauza bat. Nahiko arrunta izan da hau iraganean. Maiderren gurasoak alde batetik bestera ibiliak ziren, euren bizimodua halakoa baitzen. Honek Maiderrek beste gauzekiko zuen interes propioa haztea suposatu zuen. Aipatutako bi gauzak uztartzen dira honela istorioan. Alde batetik ezberdina izatea eta bestetik interes propioa izatea.

- Zer adierazi nahi izan duzu aukeratutako izenburuarekin?

- Ipuina irakurriz gero ikus daiteke nola, bere interesak eraginda, txori baten taupadak entzuten hasten den. Pixkanaka-Pixkanaka inguruan dituen animalia guztien taupadak entzun nahi ditu Maiderrek.

- Zergatik erabaki zenuen ' Maiderren taupada bilduma ' ipuina idaztea?

- Ez nuen erabaki, hala etorri zitzaidan. Istorio guztietan zuk bizi izandakoa edo ikusitakoa konta-tzen duzu. Askotan ez dugu ikusten baina nik uste dut, badagoela zerbait erakargarria beste norbait izatera jolasten dugunean. Guztiok inauterietan jartzen dugu hau praktikan. Baina inauteriak izan gabe ere, hor badago jolas bat neurri batean edo bestean guztiok estimatzen duguna, adin guztietan gainera. Maiderri adin bat jarri nion eta horrekin ere kontatu behar izan nuen ipuina idazterakoan. Nerabezaroa kontuan izan zuen nire istorioan.

- Gazte baten larruan sartu behar izan zenuen Maiderren istorioa kontatzeko. Zure helburua gazteengana iristea zen? Helburu didaktoarekin idatzi zenuen ipuina?

- Nagusiek ere irakur dezakete liburua, e? Eta ez, nik ez dut helburu didaktikoarekin idazten. Nik adin hortako pertsonaiak aukeratu ditut baina euren atzean nagusiak daude baita ere. Beraz hor gizarteko talde handi bat agertzen da. Baina bai, gazte baten larruan sartu nintzen Maiderren taupada bilduma idazteko. Baina hori da literatura azken finean. Pertsonaiak eraiki behar dituzu eta sinesgarriak behar dute izan.

- Ez da erraza ordea hau lortzea.

- Asko kezkatu ninduen istorioa idatzi nuenean. Sinesgarria izateko gazteen hizkuntza eta pentsamoldea erabili behar zuten pertsonaien istorioan.

- 2002an argitaratu zen zure liburua. Beste libururik kaleratu behar duzu?

- Kontakizun laburrak idatzi ditut. Urtero idazle katalan eta galegoekin biltzen gara Piriniotan eta enkontru hoietatik ateratzen dira kontakizunak. Ondoren euskaraz, katalanez eta galegoz argitaratzen ditugu.